

EZKIO-ITSASO / Haurrentzako ipuin-kontaketa egongo da gaur arratsaldean Maite Frankoren eskutik

EZKIO-ITSASO. DV. Ezkio-Itsasoko Miren Iturralde liburuzainak antolaturik, gaur arratsaldeko 6:30etan herriko liburutegian bertan haurrentzako ipuin-kontaketa bat egongo da, Maite Franko Castro-ren eskuz.

Igande honetan Liburuaren Eguna ospatzen da eta herriko liburuzainak honen inguruan ekitzaren bat antolatzea pentsatu zuen, herrian ere egun hau umeekin ospatzeko asmoz. Horrela, Maite Frankorekin harremaneta jarri eta gaur etorriko zela adierazi zuen.

Maite Franko Irunen jaio zen 1971.urtean eta 16 urte dituenetik antzezlaria da. Haur antzerkigintzan aritzen da gehien bat, gaur egun Legorretako Dar-Dar Produkzioak taldean dagoelarik. Pedagogian, antzerki interpretazioan eta material didaktikoaren sorkuntzan aritua da. Orain dela pare bat urte hasi zen ipuin kontaketeekin eta adin guztietako jendearentzat egiten ditu. Dena den, oraingo honetan hiru urtetik gora dituzten Ezkio-Itsasoko gaztetxo guztiei zuzenduta egongo da.

Maitek Frankok garai eta era askotako ipuinak kontatzen ditu, baina gehien bat merkatura atera berriak direnak aukeratzen ditu, gaztetxoaren artean irakurzaletasuna pizteko asmoz. Kontatzeko era ezberdinak lantzen ditu; batzuetan, kontalari hutsa da; besteetan panpinak ere erabiltzen ditu; aukeratutako ipuinean agertzen den pertsonaia bihurtzen da, hura bezala jantzi, hitz egin, ibili eta mugituz; beste ipuin batzuetan haurren laguntza zuzena behar izaten du, beraiek pertsonaiak izan daitezen...

Normalean bere saioak herrietako liburutegietan izaten dira, oraingoan bezala, baina gaur arratsaldean ustekabe bat izango da bai Maitek kontatuko duen ipuina bai erabiliko du era ere ezagutzen ez dugulako. Dena den, bera esaten duenez, beti oso-oso gertutik kontatzen dizkiet ipuinak haurrei, belarrira ia, ipuinak bizirik daudela ikus dezaten, kontaketa parte hartzeko gonbitea luzatuz, eta komunikazioa etengabe landuz, azaltzen du.

Maite Frankok dioenez, haurrentzat idaztea ere maite du. Liburu bakarra argitara eman du, Ixone isilik, 2004. urtean, eta zenbait antzezlan ere idatzi ditu, Egizu lo, Tartalo 2001.urtean, talde profesional batek taularatutako bakarra izanik.

Bestalde, Maite Franko bikoizketan ere aritzen da, orain dela hiru urte marrazki bizidunei ahotsak jartzen hasi zelarik.

Ekintzak

Liburutegian irakurri eta irakurmena bultzatzeaz gain, Miren Iturriozek ekintza desberdinak antolatzeko gogoia zuen ere.

Horregatik, gaur liburuaren egunaren ospakizuna aurreratzeaz gain Maite Francoren emanaldiarekin, beste ekintza batzuk antolatzeko asmoa ere badu.

San Juaneguna aldera txontxongilo edo antzeko ekitaldi bat prestatzen saiatzen ari da ere, eta urte bukaeran gurasoekin ekitalditxo bat antolatzeko aukera polita ikusten du, beraien semeentzat zein inportantea den gurasoek irakurtzea azaltzeko, umeak nola estimulatu...